

Denboraren zurrunki-
loak irentsi
ditu Julen
Elorzak Es-
koriaztan

Ikus-entzunezko komunika-
zioa ikasi zueneko garaiak. Ka-
nadan bi urte eman zituen bi-
daiatzan, lanean eta ingelesa
ikasten, eta azken zazpi urteak
Madrilen eman ditu, postpro-
dukzio master bat egiten eta
Javier Morgade-rekin lankide-
tzan; maisu handia izan da
Morgade Elorzarentzat. Do-
nostia eta Arrasate artean da-
bil azken aldian, etxe ingu-
ruan dabilenean. Gutxi
ibiltzen baita. Azken sei urtee-
tan Outdoor munduan, aisial-
di bideo ekoizpenean aritu da,
Munduko Kopako mendi las-
terketak (Skyrunner World Se-
ries) eta Salomon, Black Dia-
mond, Merrell eta beste marka
batzuentzako edukiak sortzen.
Mendiaren inguruan, beti:
erreportajeak, dokumenta-
lak... Gorbeia Suzien lasterke-
tako bideoak ekoizten aritu
zen pasa den astean, eta ne-
guari begira, beste eduki ba-
tzuk lantzen hasiko da.

Gure jardunean izaten dira
sarri bizitzaren, egunerokoa-
ren norabidea errotik aldatzen
duten egunak. Elorzaren ka-
suan 2017ko udaberrian izan
zen, Zegama-Aizkorri mendi
maratoiko bideo bat ekoitzi
zuenean: «Zaleen izpiritua,
emozioak biltzeko asmoz
ekoitzi nuen, eta bideoa Sky-
running-eko federazioak ikusi
zuen. Asko gustatu zitzaien,
nonbait, eta 2018an federazio
horretako bideoen arduradun
hasi nintzen lanean», dio Elor-
zak. Inflexio puntua izan zen:
«2019an zirkuituko 16 laster-
ketetako bideoak ekoitzi ni-
tuen, highlights edo unerik
onenen bideo bat, lehiaketa



JULEN ELORZA

Mendia eta jendea biluzteko artea

📁 **MENDI LASTERKETAK** / Andoni URBISTONDO

Julen Elorza (Arrasate, 1986) pertsona ezaguna da mendi
lasterketen munduan. 2017an Zegama-Aizkorri mendi
maratoiko bideo ikusgarria ekoitzi zuen, eta horrek
nazioarteko proben atea ireki zion parez pare. Iaz zale
askoren begietan iltzatuta geratu den bideo ikusgarria
osatu zuen, hau ere Zegama aintzat hartuz (128.000
ikustaldi). Mendia eta jendearen emozioak guztion
begietara eramaten dituen artista da Julen.

egunean bertan: irudiak gra-
batu, editatu eta sareratu».

Arrasatekoak bizkar gain lan
hori hartu baino lehen astebe-
te pasatzen zuten bideoak ai-
reratzeko. Elorza hasi zenean,
egun berean edo biharamu-
nean. Iraultza handi samarra
izan zen aldaketa hori, eta or-
duz geroztik halatsu egiten di-
ra bideoak mendiko lasterke-
tetan. Elorzaren ahotan, «egun
normaltzat hartzen da hala-
koak egitea, futbolearen eta bes-
te berehala ikusten ditugulako
partiden laburpenak». Mendi-
ko lasterketetan, baina, proze-

sua zeharo ezberdina omen
da: «Leku ezberdinetara joan
behar duzu denbora tarte txi-
kian, gure estadioa oso handia
da, askoz material gehiago
behar duzu, azkar editatu, eta
futbolearen dagoen baliabide
eta dirurik gabe».

Elorzak berak ekoizten duen
produktua erabat integrala de-
la nabarmentzen du: «Dena
egiten duen ekoizlea naiz. On-
do gogoan dut Aitor Arregi
maisua, Moriartiko zuzenda-
riak, Eskoriaztako eskolan
esan zizkidanak: alegia, etorki-
zuna ekoizle mota horiena

izango zela. Iltzatuta geratu zi-
tzaidan esan hura». Zer da, ba-
da, “todoterreno” izatea? Ho-
natx, erantzuna: “Zer grabatu,
non, nola, material guztia be-
rrikusi, irudi onenak editatu
eta bideoa aireratu. Fase guz-
tiak duintasunez lantzea».

Prozesua, halere, grabazioa
baino askoz lehenago hasten
da bideogilearentzat: «Atariko
produktzioa da gakoa. Laster-
keta batek toki teknikoak badi-
tu, horiek grabatu behar ditu-
zu. Musika ere funtsezkoa da,
emozioak transmititzeko. Las-
terketako antolatzaileek jen-
deak lasterketa horretan egon
behar duela sentitzea nahi eta
eskatzen dute». Grabazioa ere,
noski, oso garrantzitsua omen
da: «Droneak erabiltzen ditut,
ginbal kamera egonkortzeko
gailua, irteera eta helmugan
egoten ahalegindu, korrikala-
rien atzetik korrika egin...».

Bildutako material guztia
batzea, koordinatzea da Elor-
zaren buruko minen iturri.
«Sarri bizpahiru pertsona ari-
tzen gara irudiak grabatzen,
GoPro kamerak ere ematen
dizkiet lagun edo bolunta-
rioiei. Agian zazpi-zortzi ordu-
ko materiala daukat, behin
grabazioak bukatuta, eta hiru
minutuko laburpena egin
behar duzu: grafismoa egin
behar dut, irudiak koloreztatu,
soinua...». Estres handia pila-
tzen omen da: «Buruz akabatu
egiten zaitu post-ekoizpenak:
ze irudi aukeratu, zein ez, eta
fisikoki jota zaudenean, zikin-
zikin, aurretik 3-4 orduko lan
nekeza duzula jakitun...». Hori
bai, behin bideoa egiten de-
nean (txurroa hitza erabiltzen
du), sentsazioa itzela omen
da: «Zer esanik ez ekoiztitako
bideoa gustatzen bazaizu».

Gorbeia Suzien lasterketan
halatsu ibili zen bideogilea,
pasa den astean: «Ahalik eta

Julen Elorza, Arrasaten
egindako elkarriketan,
atzean horren kuttuna duen
Udalatx mendia duela.
Jaizki FONTANEDA | FOKU

toki gehienetan egoten saiatu nintzen: mendian bi tokitan, eta hasieran eta helmugan. Irteera eta bukaera ezinbestekoak dira, eta ziurtatu egin behar dituzu. Mendian akaso grabatu dezakezu, edo ez, baldintza asko baitaude. Faktore asko sartzen dira jokoan».

Lasterketa gertutik jarraitzea atsegin du Elorzak, azkarrenengandik gertu ibili, eta tranpatxoren bat edo beste egin omen zuen Zeanuri aldean: «Batzuetan antolatzaileek motorrean, edo orotariko autoan eramaten naute toki batera edo bestera. Hala egingo ez banu, ezingo nuke irudi on-onik grabatu toki askotan. Suitzan eta Italian helikopteroan mugitzea beharrezkoa izaten da batzuetan segurtasuna bermatzeko». Elorza lasterketa egiten den tokira bi egun lehenago iristen saiatzen da, ibilbidearen *scouting* edo ikuskatzea egiteko, eta antolatzaileek promozio bideoren bat ekoiztea eskatzen badiote, hura egiteko.

DRONEEN IRAULTZA

Elorza bideogile kontsideratzen da (*filmmaker* ingelesez). Irudiak ezinbestekoak direla dio: «Irudiari pisu handia ematen diot, eta egun, droneekin, zeharo aldatu da mendia erakusteko modua». Dronea, noski, gainean eraman behar du Julenek. Beste gauza asko bezala: «7-8 bat kilo denera, motxilan». Eta pisu horrekin lasterketa zati batzuk korrikalariekin egiten ditu: «Ez daukat haien gaitasun fisikoa, baina kilometro bat edo beste egin dezaket haien atzetik». Droneaz gain, ginbal gailua ere eramaten du, bi kilokoa: «Horrekin korrika azkar ezin duzu tarte handirik egin». Ginbal-ari esker, *slow motion* edo planoak geldoago

«Dena egiten duen ekoizlea naiz», dio Elorzak. «Zer grabatu erabaki, non, nola, material guztia berrikusi, irudi onenak editatu eta bideoa aireratu». Eta fase guztiak «duintasunez»

«Aintzat hartu materiala ia urtero aldatu behar izaten dudala, erabileragatik edo lurrera jausi zaidalako. Drone batek bakarrik 3.000 euro pasa balio du», aipatu digu arrasatearrak

ikus daitezke, irudi ikusgarriak benetan. Optika, lente onak ere behar dira, eta horiek hausteko arriskua handia omen da, «sarri jausten naizelako».

Materialean diru dezente inbertitu du Elorzak: «Aintzat hartu materiala ia urtero aldatu behar izaten dudala, erabi-

Elorza, «La Gara» dokumentala grabatzen Italian, Kima lasterketan. Hillary GERARDI



leragatik edo lurrera jausi zaidalako. Drone batek bakarrik 3.000 euro pasa balio du». Eskozian eta Costa Rican droneak galdu eta haiek bilatzen ordu luzeak pasatakoa da Arrasatekoa. Teknologia ere azkar hobetzen ari da, «eta buruhauste handi samarra da urtero materiala zertan berritu erabakitzea».

Duintasunez bizi da Elorza, baina lan asko egitearen truke: «Mendi maratoin mundua oso prekariora da, beste kirol batzuekin alderatuta. Jende gutxi gabilta komunikazio lan integrala egiten, eta horri esker duintasunez bizi naiz: grabatu egiten dut, editatu, grafismoa landu, dronea gidatu... Lau pertsonen lana egiten dut kasu batzuetan, ez dagoe-lako lau pertsonen lana ordaintzeko diru nahikorik. Gauza asko batera egiteko gai naizela esango nuke, eta azkar ibiliz mendian. Horrek ahalbidetzen du duintasunez jardutea».

Urteen joan-etorrian dirua sartzen ari da mendi maratoin munduan, baina korrikalari profesionalak, hortaz bizi direnak, 100-200 baino gutxiago dira. «Komunikazioa funtsezkoa da hazkunde horretan, babesleek ikusgarritasuna eskatzen dutelako. Eta irudirik gabe, irudi onik gabe, jai dago». Kontraesanak bizi izan ditu sarri bideogileak alor horretan: «Logela eta jana ordainduak ditut, batzuetan, baina proban parte hartu behar duen korrikalari profesionalak ez, akaso. Euskal Herrian alor horretan erreferente garela esango nuke, Mendi federazioaren urteetako laguntzari esker lanean duintasunez aritzeko aukera dugulako».

Diruaren sarrerarekin, mendiko lehiaketan egoera hobe-

tzen ari da etengabe. «Lehen marka pare bat zeuden, orain 15 bat badaude, oso potenteak. Milaka lasterketa daude, eta oso zaila da maila ze lasterketetan dagoen jakitea. Kilian Jornetek esaten duen moduan, gaur egun mundu guztia da Munduko Txapeldun. Alegia, ezin dela jakin non korritzen duten onenek».

Bi zirkuitu daude egun, paraleloak, baina maratoi munduan, munduko lasterketa onena gurean daukagula dio garbi Elorzak: Zegama-Aizkorri. Ultra distantzian Chamonix-eko UTMB da ezagunena. «Lasterketa baino feria bat bilakatu da egun, babesle benetan indartsuak sartu baitira».

«ZEGAMA MILAGRO BAT DA»

Sona 2017an Zegama-Aizkorri maratoiaren inguruan egindako bideo batekin lortu zuen Elorzak, baina bere puntu gorena iazko udaberrian lortu zuen: 128.000 ikustaldi batu zituen ekoizpenarekin, eta honek ere Zegama-Aizkorri ardatz. «Bideo berezia izan zen, pandemiaren osteko lehena, eta jende xumearen, korrikalarien emozioak bildu eta erakusteko asmoz ekoitzi nuen». Mikel Laboaren Txoria Txori abestia erabiltzeko baimena lortu zuten, eta Salomon markarentzat egin zuen bideoa. Ramon agertzen da, Zegama-Aizkorri mendi maratoko boluntarioa, probak sentiarazten dizkionak azaltzen.

Elorzak miresmena sentitzen du Zegama-Aizkorri mendi maratoiarekiko: «Milagro bat da. Nongoa naizen galdezten didatenean Basque Country esaten dut. Ez baldin badakite, close to Zegama esaten dut, Zegama ondokoa, eta hor jada jendeak badaki nongoa naizen. Akaso izena sin-



plea delako da, edo jendearen izaeragatik; Kilian Jornetek eman dion bultzada ere aintzat hartu behar da, 10 urtetan irabazi eta gero... Honelako herritxo batek halako oihartzuna izatea mendi lasterketen munduan eta onenak urtero bertan batzea sekulakoa da».

Erreferente bilakatu direla dio Elorzak, euren hasierako printzipioak eta azpiegitura xumea mantenduz. «Ez sinesteko modukoa da herrian, mendi magaletan biltzen den jendetza: 3.000, 4.000 lagun... Hori ez da

inon ikusten, Italiako lasterketaren batean hurbiltzen dira pixka bat, akaso, baina oso urrun. Aizkorri Euskal Herri er-

«Komunikazioa funtsezkoa da (mendi lasterketen) hazkunde horretan, babesleek ikusgarritasuna eskatzen dutelako. Eta irudirik gabe, irudi onik gabe, jai dago»

Elorzak miresmena sentitzen du Zegama-Aizkorri mendi maratoiarekiko: «Ez sinesteko modukoa da. Mendi magaletan biltzen den jendetza... Hori ez da inon ikusten»

dian dago, eta leku askotatik hurbiltzen da jendea. Nire lasterketa kuttunena da Zegama, dudarik gabe, etxeokarekin ba-



Ezkerreko irudian, korrikalari baten jarraipena egiten Matterhorn Ultraks Extreme lasterketan, Suitzan. Eskuinean, Salomon UltraPirineu lasterketa grabatzen, Katalunian.
David CARLIER - Guillem CASANOVA

tera: Arrasatetik Udalatxera igotzen den lasterketa, Mondraitz elkarteak antolatua».

Udazkenak lehen ostikadak jo dituen honetan, Elorzak kamerari eta beste tramankuluei atsedean pixka bat emango die laster, udaberriak berriro aireportuetako egonaldi luzeak, mendi irteerak eta grabazio egun nekagarriak bueltan ekarri bitartean. Orduan mendi lasterketek jende guztia berdintzen dutela erakusten saiatuko da berriro. «Irteeran denak berdina dira, bai elite mailakoak, baita amateurrak ere. Zortea baldin baduzu, Kilian Jornet-en ondoan abiatuko zara, eta horrek sekulako sentsazioa izan behar du korrikalari arruntarentzat. Beste kiroletan ez da hori gertatzen, eta irudi horiek bildu ahal izatea oso polita da niretzat».

Ez pentsa negu ilunean Elorza bera geldirik geratuko denik: «Ez, ez. Erronka asko ditudut. Agian nire *storytelling*-a gehiago landu nahi nuke (ikuslea erakartzeko komunikazio teknika, mezu edo ideia jakin bat transmititzeko istorioak sortuz). Ez bakarrik mendia eta aisialdiaren inguruan. Kutsu sozialeko gaiak lantzea gustatuko litzaidake, jendea protagonista den ekoizpenak. Uda aroan nahikoa denbora eman dut dagoe-neko bakarrik mendian, eta neguan jendearekin denbora gehiago eman nahi nuke».